

ELKARTEAK

Gure zerbitzuan beharrezkoak ditugun aliantzei esaten diegu elkarteak, izan ere, hau aurrera eramateko beharrezkoak dira aliantza batzuk sortzea gure zerbitzua osotasunean lortu ahal izateko.

Lehenik eta behin, Urretxu eta Zumarragako udalekin hitz egingo dugu proiektu honen berri emateko. Bi herriko udalek diru laguntza emateko eskatuko diegu, gure zerbitzua onuragarria denez bi herrientzako. Beraien laguntza beharko genuke gure zerbitzua ahalik eta modu onean aurrera eramateko, eta jaso dezakegun diru kantitatea handiagoa izan daiteke. Honez gain, gure gimnasioari buruz publizitatea egingo dute gure herriko webgunean eta irratian. Izan ere, geroz eta publizitate gehiago egin, herriko bezero gehiago lortzeko aukera izango dugu eta uste dugu udalek hemendik onura atera dezaketela.

Beste diru laguntzaren bat lortu ahal izateko eusko jaurlaritzari gure proiektua aurkeztuko diogu. Hauek enpresa berriei diru laguntzak eskaintzen diete, gehienez, 30.000€ ematen dute. 5 urteko epean dirua bueltatzea komeni da eta gutxienez hilabetean behin ordaindu behar da.

Eta gure zerbitzua maila altuago batera ezagutzera emateko, Gaztea Irratia, Otxamotz, Berria, Argia eta beste hainbat egunkarirekin eta irratsaioekin aliantzak egingo ditugu. Eta informazio zehatzagoa jakin nahiko balute, gure webgunea propioa izango dugu, eta hau egiteko beste webgune batzuetan kontsultatuko dugu, gure eskuz egin ahal izateko.

UGGASA, garapen sozioekonomikorako agentzia da eta Urola Garaiko ongizate, integrazio eta gizarte kohesio maila handitzea du helburu. Honi lokal handi bat eskatuko diogu, aukera guztietatik merkeena baita. Beraiek lokala eskeintzen digute, hilean 30€-ren truke. Horrela, gure gimnasioa jarri dezakegu bertan. Honez gain, UGGASA-k ere argindarra, ura eta beharrezkoak diren beste elementuak eskaintzen ditu lokalaren prezioaren barnean.

Guk funtsezko jarduerak beteko ditugun arren, gimnasioko monitoreak lortu ahal izateko Zerkirekin, herriko kirol zerbitzuarekin, kontaktuan jarriko gara. Horrela langile kirolariak lortuko ditugu, izan ere, hauek kirolari buruz jakintza handia dute eta. Horrez gain, umeei ibiltzen direnez, gertuko tratua eskaintzen badakite eta faktore hau guretzako oso garrantzitsua da, izan ere, gure



bezeroak tratu hobereena jasotzea interesatzen zaigu. Zerkiko langileak ipiniko ditugu langile bezala, kirolari lotutako jardueretan ibiltzen direlako.

Gimnasioa garbi mantentzeko, Irimo zerbitzuko garbitzaileak kontratatuko ditugu. Herriko enpresa bat da eta bertako langileak gertuko pertsonak dira, horregatik aukeratu ditugu.

Bestalde, atsedean gelan edariak eta snack-ak saltzen dituen makina bat jarriko dugu. Horrela, gure bezeroek atsedena hartzeko garaian edari errefreskagarriak edan eta zerbait jan dezakete energiak berreskuratzeko. *Central del Vending* zerbitzuarekin jarriko gara kontaktuan beraien makinetakoa bat erosteko. Gainera, hornitzaile bat kontratatuko dugu produktuak ekartzeko.

Kirola egiteko makinak eta materiala berriz, Gymcompanyn erosiko ditugu. Gimnasioetako makinak saltzen dituen enpresa bat da eta kalitate onekoak dira.



Caja Rural bankuan kontu bat irekiko dugu, bertan gordeko dugu lortutako dirua. Konfiantzazko bankua delako eta aukera onena dela uste dugulako. Gainera, mailegu bat eskatuko dugu gure zerbitzua hasiera batean aurrera eramateko. Gero, pixkanaka dirua lortu ahala, bankuari bueltatzen joango gara.

Bestalde, Ugleko ikasleak eta langileak mantenimenduan lan egingo dute, energiarekin zerikusia duten gauzei buruz dakitelako eta aholkuak ere eskainiko ditutela uste dugu. Produkzio, instalazio eta eraikinen efizientzia energetikoa eskaintzen dute. Eta horrez gain, kirola egiterakoan energia gordetzeko bateriak, motorrak, inbertsoreak eta hauek lotzeko diodoak ere beraiek ekarriko dizkigute, guk ordainduz. TKgune, lanbide heziketako hainbat zentrok osatutako elkartea da, eta hauekin ere aliantza egingo ditugu. Hauek Uglekoekin aliantza dutenez, energiarekin zerikusia duen edozer gaian lagundu diezaigukete.



Bukatzeko, gimnasioan beharrezkoa dugun materiala aztertuz, bozgorailuak erosi beharko ditugu, giro atsegina eragiteko eta jendea motibatuz. Horretarako Djmania webgunean erosikoo ditugu, bozgoragailu guztiak berdinak izan daitezten.

